



1922. urteko taldea. Ezk-eskubi, zutik: Manuel Galarraga, Pilar Olaskoaga, Andres Etxeberria, Julian Urkia, Nikanor Albisu eta Juanito Jauregi. Eserita: Agustina Ganborena, Teodoro Goñi, Pilar Mitxelena, Iñaki Lizaso, Jeronimo Etxeberria eta Inazio Kortaberria.

# GURE ARTEKO EUSKAL ANTZERKIA

MARTIN TEJERIA

Aspaldi honetan, euskeraren egoera larria nolabait apaltzeko, sail berriak sortu dira gure artean. Beste hainbat herri mogimenduren artean hor daude ikastolak, kantagintza berria, poesiaren bultzada, irrati saioak... eta burua lehengo lepotik duela, bertsolaritza. Baina teatroak, antzerkiak, ez du bururik jaso gerraondoko azken urteotan. Lehengo antzerki hura kaikua bazen, ez dirudi orain arteko berria hobea denik. Hala ere, badirudi zenbait talde, nola edo hala, bakarkako lanetan ibili ezezik, elkartzeko pausoak ari dela ematen. Gaur egun konfederakuntzak, elkarte eta kooperatibak, antzerki biltzarreak dabilta jendearen ahotan.

«Zeruko Argian» esate baterako, (741 zenb.) Daniel Landart nafar gaztea elkartzeko honetaz mintzo zitzaigun. Han esaten denez, «Euskal Antzerki Taldeen Biltzarrea» erakundea gure teatro ahul eta eskasa sendotzera, bizkortzera omen zetorren. Historia apur bat ere kontatzen digu Landartek, Gipuzkoan bertan egin izan diren ahaleginak, Lapurdi eta Baxenabarreko taldeen berri eta gisakoak. Bileretan parte hartutakoez eta, Erreteriariko «Ereintza» aipatzen da hor. Honek, gure herriak izan duen tradizio xume baina aipagarri garamatzi zuzenean. Gure artean gutxienez aipagarri denaz ari naiz. Aldi batez, hemengo zenbait jende antzerki lanetan saiatu baizen. Haien ekintzaz ez dakigu gehiegi ordea. Gerra aurreko eta gerra ondoko «berriago» haitaz batez ere, Andoni Korta eta lagunak...

Geure aldetik, azkar asko konturatu ginen ezin genezakeela berri zaharrik eskaini, jakina, eta hortarako egokiago iruditu zitzaigun sasoi hura bertatik ezagutu zuen batengana jotzea. Boni Otegi behin baino gehiagotan esan bezala, OARSO honen gisako txokoak herri-usario eta ohiturak erakusteko aproposak baitira. Esan eta egin. Nikanor Albisuren azalpenetara jo genuen. Albisu jaunak hizketa bizia du. Euskeraren ona eta garbi istimatzen ditu, ez dizu mordoillorik maite... Baina berriketa haundirik gabe aspaldiko urtetara goaz.

— *Eta nondik hasi Nikanor...*

— Ba, poz-pez esango dizut Erreterian antzerkitzari buruz dakidan edo gogoratzen zaidan guztia. Baiñan zure desio horri behar bezela erantzutekotan, zuk uste baiño urrutixegotik hasi beharra izango dut. Mende honen hasiera xamarretik noski.

— *Tira ba!*

— Erreterian lenen-lenengo eusko antzerketa egin zutenak Orfeón Renterianoko abeslariak izan ziran, Santestebanen «Pudente» opera euskeraz abestuaz. Esango dizut nolaz dakidan. Bagenuen guk, ume giñala, kanturako afizio izugarria eta abots bikaiñeko izeba Maria bat. Hari entzuna-ta dakizkit «Pudente» hartaz dakizkidanak, eta ume izanik, bost-sei urte, gogoan oso hartuak. Eta gauza harrigarria. Ez dut uste «Pudente» ikustera inoiz ere joan zanik, orduan lotsagarri xamarra izan behar baizuen neska gazte bat teatro batera joatea eta haren kasuan okerrago apaiz baten arreba izanik... baiña halaz eta guztiz «Pudente» guztia hasi eta buka zekien buruz eta bere imintzio guztiarekin abesten zizkigun parte guztiak.

— *Eta hori?*

— Ez dut beñere ulertu nolaz ikasi izan zezakeen, ziur bainago etzala inoiz nere izebarik Alondegi zahar haren gaiñeko teatro izeneko toki aldrebes hartara, geroago Cine Renteriano (Erreterian lendariziko zinea ikusi zan toki hartara) «Pudente» ikustera eta entzutera joan. Entzumen berexi-berexikoa izango zala dudarik ez daukat, baiñan, nori entzunda zekien orduan? Umetako kontuak ziran haik eto gero, haundituta, galdetzerik gogoratu ere ez. Ta pena dut.

— *Aizu, eta nola abesten zuten «Pudente», egileak agindu bezela emakume eta guzti? Noizpait entzun dudanez «Orfeón Renteriano» hura gizon abotsez soilik osaturik baizegoen...*

Oso errax. Garai batean hain famatua zan «Mateo» izeneko jate-txeko seme batek eta guztiok ezagutu dugun Juan Joxe Urigoitiak izan behar zuten emakume paperak egiten zituztenak, beren boza mehekin. Eta ez dut uste besterik egin zutenik antzerki gaian. Egindakoa ere ez da gutxi sasoi hartarako.

*Geroztikakoari buruz zer diozu?*

Ba, nik uste dut lendabiziko Batzokia ireki zan arte etzala Errenterian ezer egin arlo hortan. Orduantxe eman zitzaion hasiera, nola edo hala antzerki lanari.

*Bai al dakizu noiz eta non zabaldu zen Errenterian lehenengo Batzokia?*

Ez dut uste gaurko egunean askok erantzun lezaiokeunik galdera horri Errenteriko zuluari. Lendabiziko Batzokia, Periko konfiteruaren etxean ireki zan, Erdiko-kaleko ezker aldeko lehenengo etxean, bigarren bizitzan. Etxe horrek orduan plaza aldetik zuen sarrera. Esan nezake hantxe ikusi nuela nik lendabiziko antzerki tokia. Nik uste sei bat urte izango nituela eta ez naiz gogoratzen zein osabek eraman ninduen. Ikusi nuena eta gogoan gelditutakoa dut, toki illun bat lendabizi, gela illun bat eta gero aurrekaldean toki argitsu bat oihai gorri batekin itxita. Ez naiz gogoratzen zapi hura ireki zani, agian loak hartuta edo, ez nuan behintzat ezer ikusi eta ez naiz gogoratzen berriro toki hartara eraman nindutenik.

— Orduan, urte asko berriro halako toki bat ikusteko, ez da?

Ez hainbeste. Urrengo gela illuna ta toki argitsua, Beko-kaleko Batzokian ikusi nituan, bosgarren etxean eta bigarren bizitzan uste dut. Hara aldatua zan Batzokia eta han ikusi antzestokia ezezik bai eta lenbiziko eusko antzerkiak ere. Zazpi-zortzi urte izango nituan eta osabek, biak sozio izango ziran, batak edo besteak eramaten ninduten saioak ikustera.

— *Zer daukazu gogoan han ikusitakoaz?*

— Antzerkiari buruz ezer gutxi. Baiñan zeintzuk ikusi nituan antzerki lanetan, haietaz bai, gogoan ditut batzuk behintzat zein ziran baiñan zer egiten zutenik ez nizuke esango. Geroago jakindako izenburu batzuk gogoan dakazkit. «Damua garaiz», «Aterako gera», «Bixente», Soroarenak noski, «Bateko urria» eta beste bi edo hiru. Ramon Illarramendi errenteriarrenak. Bai eta ere beste bat, aita batek bere seme-txoa eskutik hartuta «baile San Vito» zuela eta, sendagilearengana eraman zuen ea sendatuko ote zuen. Ez dut gogoan antzerkiaren izenik, baiñan gizona eta mutikoa bai. Gizona Ireneo Rekalde eta mutikoa berriz, neroni. Bai eta kantatutako beste funtzio bat ere «Lushemendi»-ren musikarekin. «Joxe Gorgonioren estuasunak» edo holako zerbait zuen izena. Handik urtetara Reginori entzun nizkan bere kanta guztiak.

— *Eta zer gehiago funtzio haitaz?*

— Esan dizut antzeslarietaz gehiago gogoratzen naizela eta hala da. Denen gainetik Higinio Ulaziaz gogoratzen naiz. Hura izango zan inportanteena noski, nere iritzian behintzat. Eta horretaz gainera, esandako Ireneo, Regino Amoriza, Joxe Txapartegi, Patxiku Ganborena, Xexilio Gezala lezoarra, Juanito Jauregi, Juanito Delpuerto, Pontikako Anixeto, Teodoro Goñi, Mugerza anaietako bat edo beste ere bai. Eta harrigarria sasoi hartarako, bai eta hiru emakume, hiru neska gazte ere. Hara haien izenak nere bihotz agurrik beroenarekin: Dolores Jauregi, Teodora Salaberria lezoarra eta Juli Uri. Hauek izan ziran gero gure ekintzetarako bideak ireki zizkigutenak. Eskerrik bihotzekoenak denai.

Gaiñera gauza bat esango dizut antzerki jai haien buruz. Euntalako kategorikoak izaten zirala. Antzerki gainera musika izaten zan eta ez nolana hikoia. Manu, hain aipatutako Manu Berastegi baritono bikain hark, Juan Mari Arozena pianoan lagun zuela, bere «*Figaro si, Figaro la*» eta beste hainbat opera kantuekin alaitzen gindun. Nahiz eta antzeslarietza eskeintzen genizkien txaloak ugariak eta beroak izan, Manuri eskeiniak etziran motelagoak izaten eta baita biziagoak orkestrinari eskeinitakoak.

*Orkestina esan duzu?*

Orkestina esan dut eta ez nolana hikoia bera. Eguarri eta Pazko-tako jaietan oporretan zeuden errenteriar estudiantetarik ziran beren jaldiekien esan dutan kategoria osatzen zutenak, hauek ere Arozenak pianoarekin laguntzen zituela. Artista estudiantetarik ere bihotz agurrik beroenarekin aipatzen ditut, eta denak hillaik diranez beren izenez gogoratu nahi ditut. Joxe Mari eta Timoteo Etxeberria anaiaik, Ubaldo Gastaminza eta bere anaia Julio, laurak biolin jotzaille yaioak. Atsedena edo entreakto batean gero sonatua izango zan jaun bat ikusi nuen, Juanito Telleria, «La Dama de Aizgorri»-ren egillea, gero baita ere «Cara al Sol» egingo zuena, Joxe Antonio Jauregi Errenteriariko txistulari bikain hura ondoan zuela, ziur asko txistularientzat berak eratutako zertxobait jotzen eta erakusten edo. Kontu atera ezazu bada kategoriarik ba zeukaten ala ez ordurako Errenteriariko Batzokian egiten ziran antzerki jaiak. Esan beharrik ez dago, orduan orduko abesti aberkoiekin amaitzen zirala antzerketa funtzio goxo haik.

*Eta gutxi gora behera, noiz arte iraun zuen giro hark?*

— Ez nizuke ziur esango. Hamar urte edo nituala, hau da, 1913an, osaben etxetik bizitzaz aldatu giñan eta ez nuan gehiago antzerkiak ikustera joateko modurik izan. Hamasei urte egiñik Batzokiko bazkide egin eta igande bazkalondotan gizonak bezela bertaraten giñanean, ez dut uste antzerkiak egiten zani, nahiz antzertokia eta pianoa lengo tokian egon. Gaiñera handik laster tokiz aldatu zan Batzokia. Fureruen plazako etxe batera. Bittor Idiazabalen aita kontserje zala. Baiñan han etzegoen kafea hartu eta tutean eta julepean aritzeko bestetarako tokiarik. Geroago, Frontera bideko Batzoki berri eta eder hura bukatu eta prestatu zanean, Teodoro Goñik antzerki talde bat moldatzea erabaki zuan, areto berri eta eder hartan jendearen alaitasunerako eta euskeraren ederrerako antzerki jaiak eratzeko antzertokia gertu erazi zuan, eta horrela, berberak berexitako neska eta mutil gazte batzuekin osatu zuan hain joko on eta aipagarria jokatu behar zuen talde hura. Hau, 1920gn, udaran izango zala uste dut. Taldea osatzeko Teodorok hautatuak hauek izan giñan: Pilar Mitxelena, Agustina Ganborena, Pilar Olaskoaga eta Juanita Lekuona alde batetik; eta mutillak berriz Manuel Galarraga, Andres Etxeberria, Iñazio Kortaberria, Miguel Mitxelena, Juanito Jauregi eta ni, eta apuntadore Julian Urkia. Libreto egintzaillea Paquita Astibia eta eszenagrofoa Mateo Salaberria lezoarra. Ikusten duzun bezela, etzan posible gehiago eskatzerik.

Eta saiotan bi berehala eta gogor hasi ere. Egunerok, illunabarrero egiten genituen 1920-21 negu hartan. Oker ez banago horri Bitor Garitaonandia apaizaren «Iziartxo»-rekin eta Toribio Altzagaren «Ezer ez ta festa» jostailu politarekin eman genion hasiera. Hiru edo lau negutako antzerki lanari. «Iziartxo»-ren ondorengoak asko izan ziran, «Dollorra», Elizondorena noski, «Aitona ta billoba» Bitorrena hau ere, «Biar arte, ja jai» eta «Uste diñat» biak Olaizolarenak; «Aldiz aldiz», «Bixente», etabar. Diputazioan egongo da nunbait ere gure orduko lanen zerrenda.

*Diputazioak biltzen al zituen zuen lanak?*

— Gu lanean hasiak giñala, Diputazioak sariketa bat eratu zuan Gipuzkoako antzeslari taldeen artean eta neguaren amaieran nor-gehiagoka hura erabakitze Donostiako «Novedades» antzokian eratu zituan behar ziran saioak. Eta txapelketa hartara hiru talde inguratu giñan, Pasai Donibaneakoak «Dollorra»rekin, Debakoak «Garbiñe»rekin eta Errenteriarikoak «Iziartxo»rekin. Nahiz eta sanjuandarrekin larri mar ibili, lendabiziko saria guri eman ziguten. Gogoangarria Puy sanjuandarrak Dollorren paperari eman zion sakontasun eta sendotasuna. Bikaiña benetan Puy sanjuandarra.

Urrengo negurako (1921-22) langille berriak etorri zitzaizkigun. Dominika Alberdi eta Eladi Ganborena (nere emaztea izan behar zuena) neska gazteak eta Karmelo Bermejo eta Jesus Etxeberria, hauek biak Toribio Altzagaren «Biotz berak» laneko sendagilearen papera bata bestearen atzetik egitera. Negu hartan lan asko egin genuan. Igandero antzerki saioa eskeintzen genuen aretoan ezin gaburrik etortzen zan jendetzari. Eta esan behar dizut entreaktoak etzerala izaten sasoi batean bezela lau biolin eta pianoarekin, baiarik eta gure lagun maite, guztrako prest aurkitzen zan Andresek borondate onenarekin piano zahar hartan bere «*gran-gran*» doinu sutsuarekin alaitzen zituen jendearen belarriak, gure bukaerarik gabeko entreakto luze haik amaitu artean. Eta azkenik, eta gauza berexi-berexi bezela, «Gar-

biñe» Elizondo donostiar andereñoaren antzerki berdingabearen eratzeari ekin genion. Zenbat emakumek egin ote zuen lan orduan, Teodororen begiratupean nik ez dakit zenbatgarren mendeko arropak eratzten antzeslari guztientzat bakoitzari bere era eta neurrian!!!

Berriro Diputazioak konkurtsoa eratu zuen. Oraingoan Gernikan, Eusko Ikaskuntzak bere jaialdia zuela-ta harekin alkar harturik. Oraingoan bi talde bakarrik joan giñan. Bergarako batzokikoak eta gu. Baiñan penagarrizko zerbait gertatu zan. Bi biek antzerki bera eraman genuen leiaketara, eta biek «Garbiñe» hain juxtu. Altzagaren «Biotz berak» beharrezko osagarri genuen.

Leiaketa hartan etzan borrokarik izan. Oso aixa irabazi genuen. Esan beharra dut Teodoro Goñik Gernikan erakutsi zigula, bi antzerki haitako bi paperen bitartez, aitonarena «Garbiñe»n eta sendakiñarena Altzagarenean, bere egite bikain eta yaiotasuna. Esan liteke berak bakarrik irabazi zuela sariketa. Hain zuzen, gu Gernikara joan baiño bi edo hiru egun lenago, Jesus Mari Leizaola Bilboko espexera eraman zuten bi guardia zibil artean preso. Oñez eraman gañera Gernikatik. «Amaya» opera ere egun haitan izan zan abestua hango zelai batean.

Urrengo neguan (1922-23) berriro lanera. Oraingoan Xeberi Aierbe eta Jabiera Salaberria etorri zitzaizkigun. Begenuen nahiko ondo ateratzen zitzaigun lan bat, «Maitasun ta gorroto». Apaiz batena zan, hernaniarra bera eta gero Valladolideko artzapezpiku izan behar zue-na. Goldaraz zala uste dut. Herritik kanpora ere ibili giñan. Oiartzuna hango jaietan. Pasai Donibanera ere bai behin, Hondarribiara ere bai eta azkeneko irteera Doneztebera, Nafarroara izan zan, Iruñako Principe de Vianak eratutako euskal jai batera.

Gogoan daukat gure Pottokok bere abots eder eta bikain harekin Iparragirreraren «Gazte gaztetandikan» abestu zuela. Aita Donosti ospetsuak pianoan lagunduaz... Aita Donosti txoratuta utzi zuela bistan zegoen haren parremurrirtza ikusita. Hortan amaitu nezake gure talde maite haren lan eta eginkizunen kondaira. Baita Circulo Carlistan (Goiko-kalean) eta Liberalean (gaur Xenpelar kalea) ere, antzerki aldiak egiten ziran. Liberalean Juan Mari Elizetxea, Paz Zalakain, Katalin Urigoitia... aritzen ziran. Centro Carlistan berriz, Agustin Salaberria, Ramon Zapirain, etabar.

– *Eta gero?*

– Guk utzitako lana Felipe Lizasok hartu zuen eta jarraitu, oso ondo gañera. Bere taldeko batzuk zein zituen ere gogoratzen naiz. Emakumezkoak Ana Mitxelena, Maritxu Jauregi... Mutilak Joxe Lizardi, Bittor Idiazabal, Eugenio Errazkin, Patxi Oiarbide, Andoni Kortaa...

– *Eta noiz arte jarraitu zuten?*

– Primo de Riveraren diktadura bitarte uste dut. Handik aurrera futbola jabetu zan herriaz. «Euskalduna» zala-ta irekia egon zan Batzoki zaharra. Errepublika garaian ere jarraitu zuten eta zer esanik ez, Batzoki berriko antzoki ederrean lan asko egin zuten, batez ere antzerki aberkoiak erakutsiaz. Gero, gerra madarikatua etorri zan eta kito.

– *Eta gerra ondotik, noiz berriz eta zein?*

– Gerra ondorena luzea izan zan Erreterian eta Euskal Herri osoan noski antzerki lanari buruz, alik eta noizbait ere Andoni Kortaa euskaltzale zintzo hark zerbait egitea gogoratu eta bere asmoa aurrera eramatea erabaki zuan arte. Berak jakingo zuan zenbat eta zenbat kosta zitzaion asmo hura bere bidean jartzea. Jende ona billatu zuan gañera. Batez ere bi neska gazte, Joxepi Artano eta Arantxa Martinez, zein baiño zein hobea eta mutilletan Arruabarrena, abots ederra, patxadako mutilla, esan liraiñekoa benetan. Benetan yaiok hirurak.

– *Eta azkenik, zer esan zenezake hauen lanez?*

– Ezer gutxi. «Dollorra»z gañera, neretzat ezezagunak izan ziran antzerki guztiak eta batzutan ondo, bat edo beste oso ondo eta bat edo beste gaizki ere bai. Guztien gañetik, Andoni Kortaren zaletasuna.

Berriketan jarraituko bagenu ere, beste ordu parean ez ginake aspertuko. Berak ikusitako pasadizo arrunt eta bikain aski esango lizuke gizon honek, aspergabeko kontaeran. Bat edo beste ahaztu ere bai, agian. Gainera, irakurle asko konturatu dira hildako lagun eta ezagun gehiegi aipatu dituela Nikanorrek. Besterik ez beraz. Txirritak bere bu-ruari esan bezela, zuen aitamenak izango dira beste larogei urtetan.



1918 urtean, eta ordungo «Panier»en ateratako argazki ontan ikusten degu ga-  
rai artako beste erreteriar antzerki talde bat: «Circulo Liberal»koa.